



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko apirilak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de abril de 2021

Lana eta Enplegua

GOBERNU KONTSEILUAK LANBIDEREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINITZA OROKORRAREN ARTEKO HITZARMEN BAT SINATZEA ONARTU DU, INFORMAZIOA TRUKATZEKO

- **Iruzuraren aurka borrokatzeko aukera emango du, bai eta laguntzen, dirulaguntzen eta prestazioen kudeaketa hobetu eta arintzekoa ere**

Jaurlaritzaren Kontseiluak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eta Lanbideren arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea onartu du gaur, iruzurraren aurka borrokatzea eta funts publikoen kargura ematen diren laguntzen, dirulaguntzen eta prestazioen kudeaketa hobetzea eta arintzea ahalbidetuko duen informazioa trukatzeko.

Elkarlanaren esparruan, bi alderdiek uste dute funtsezkoa dela, beren helburuak betetzeko, informazioa trukatzeko eta lankidetzan aritzeko sistema egonkor bat ezartzea, eta sistema horrek, hala badagokio, beren datu-base informatikoetarako sarbide zuzena ere ahalbidetuko du.

Hitzarmen honek jarraitu nahi du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eta orduko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren artean 2010eko maiatzaren 11n sinatutako hitzarmenaren bidez hasitako harremanarekin. Hitzarmen hori datuak lagatzeko sinatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoari enplegu-politika aktiboen arloan transferituko zitzaizkion eskumenak behar bezala gauzatzeko laguntza-tresna gisa, ordura arte egiten ari zen eta bere gain hartutako programen kudeaketan jarraipena bermatzeko helburuarekin, ordura arte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak betetzen zuena.

Ondorioz, hitzarmen honek aurrekoa ordeztuko du, baina irismen zabalagoarekin, informazio gehiago eskuratzeko aukera emango baitu (adibidez, langileen kotizazio-oinarriak eta enpresen batez besteko plantillaren txostenak), eta horrek Lanbideri esleitutako eskumenak behar bezala gauzatzeko erraztuko du.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK MERKATARITZA GUNE HANDIEN INGURUMEN ZERGARI BURUZKO LEGE PROPOSAMENAREN AURKAKO IRIZPIDEA ADIERAZI DU

Eusko Jaurlaritza ez dago ados saltoki handien ingurumen zergari buruzko lege proposamena aintzat hartzearekin, kontraesankorra izango litzatekeelako erakundeen arteko akordioan eta lankidetzan oinarritutako euskal zerga ereduarekin eta, gainera, disfuntzioak sortuko lituzkeelako pandemiaren ondorio larriak pairatzen ari den merkataritzaren sektorea babesteko politikan.

Asteroko bileran, Gobernu Kontseiluak EH Bildu legebiltzar taldeak aurkeztutako lege proposamena aztertu du gaur Gasteizen, eta ondorioztatu du ez dela gomendagarria merkataritza gune handien ahalmen ekonomikoa larritzen duen ingurumen zerga bat ezartzea, sektorearen susperraldiari kalte egingo liokeelako.

Kovid-19aren agerpenak eta haren ondoriozko eragin negatibo handiak ataka zailean utzi du merkataritza sektorea ekonomiaren eta enpleguaren ikuspegitik. Kontsumitzailearen ohituren aldaketak eta multinazional handien online salmentaren inpaktuak maila globalean -ez du toki fisiko iraunkorrik behar eta, beraz, ez ditu merkataritza fisiko baten kostu berberak jasaten- areagotu egin dute egoera hori.

Pandemiak bizkortu egin du mota horretako establezimenduetan eta tokiko merkataritzan pairatzen ari zen egiturazko egoera. 2020. urtean, Euskadin merkataritza saltokien kopuruak behera egiten jarraitu du, eta 1.500 baino gehiago galdu dira aurreko urtearekin alderatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoak gai honetan ere bere zergak Eusko Legebiltzarraren bidez arautzeko gaitasuna duela onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzak uste du EH Bilduren lege proposamenak zehaztasun falta kontzeptualak dituela, hala zioen azalpenean nola artikuluetan, bertan euskal zerga sistemaren planteamendu okerra jasotzen baita. Jaurlaritzaren irudiko, zerga politikak orekarik handiena bermatu behar du diru sarreraren eta gastu publikoen artean, eta zerga sistema ekitatiboa eta eraginkorra gauzatu behar du esparru guztietan. Finantza nahikotasunaz gain, lehiakortasuna indartu behar du, kasu honetan, merkataritza sektorean.

Horrelako zerga batek udal eremuan garatzen diren politiketan izan dezakeen eragina dela eta, zerga horren ezarpenak erakundeen adostasuna izan behar luke. Laburbilduz, merkataritza gune handien gaineko ingurumen zerga bat kontraesankorra izango litzateke akordioan, koordinazioan eta erakunde arteko lankidetzan oinarritutako euskal zerga eredu batekin eta, gainera, disfuntzioak eragingo lituzke merkataritza babesteko politikan.

Hezkuntza

868.000 EURO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ELKARRIZKETA-LAGUNTZAILEEN PROGRAMARAKO

- **Hezkuntza Sailak 155 elkarrizketa-laguntzaileen egonaldia finantzatuko du datorren 2021-2022 ikasturtean**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, lankidetzahitzarmen bat sinatzea baimendu du gaurko bileran. Hezkuntza Saila eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren arteko hitzarmen horren bidez, 2021-2022 ikasturtean Euskadiko ikastetxe publikoetan arituko diren elkarrizketa-laguntzaileen jarduera arautzen da.

Datorren ikasturterako, hitzarmen hau tarteko, Hezkuntza Sailak 155 elkarrizketa-laguntzaile jasotzea eta finantzatzea aurreikusten du, bere menpeko ikastetxe publikoetarako, batez ere Bigarren Hezkuntza eta Hizkuntza Eskola Ofizialetarako, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza indartzea helburu hartuta. Hezkuntza Sailak finantzatuko dituen 155 elkarrizketa-laguntzaileen artean, 140 ingeles hizkuntzakoak izango dira, bederatzi frantsesekoak eta sei alemanekoak. Aipaturiko 155 laguntzaile horiei beste 33 ere gehituko zaizkie, Ministerioak finantzatuak azken hauek.

Hezkuntza Sailak 868.000 euro bideratuko ditu datorren 2021-2022 ikasturtean laguntzaile hauen egonaldia finantzatzeko. Hilero jasoko duten dirulaguntzaz gain, osasun-estaldura ere jasoko dute Elkarrizketa-laguntzaileen programan parte hartzen duten pertsonek, Europako osasun-txartelik ez duten kasuetan.

Ahokotasuna indartzea

Elkarrizketa-laguntzailea graduatu berria edo azken ikasturteko unibertsitate-ikaslea izan ohi da bere jatorrizko herrialdean. Honi ez zaio irakasle titular baten erantzukizunik esleitzen. Hortaz, ez da irakaskuntzan bera bakarrik aritzen. Beraz, elkarrizketa laguntzaileek irakasleei laguntza emateko zeregina dute atzerriko hizkuntzako eskoletan. Euren berariazko eginkizunak, batik bat, ikasleen ahozko trebetasunak indartzera daude bideratuta. Astean 12 orduz ematen dituzte eskolak, irakasle titularrak lagunduta; baina inoiz ez bakarrik.

Irakasleak koordinatuta eta gainbegiratuta, laguntzaileari, besteak beste, eginkizun hauek eman ahal izango zaizkio: elkarrizketako berariazko praktikak prestatzea, irakasleen prestakuntza, hizkuntza eta kultura ikasteko materialak prestatzea edo euren herrialdeko kulturarako hurbilketarekin zerikusia duten jardueraz arduratzea.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILA ETA UNEDen ARTEKO LANKIDTZA HITZARMENA

Gobernu Kontseiluak gauko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Hezkuntza Sailaren eta UNED Urrutiko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

Lau urteko indarraldiarekin, hitzarmen honek hezkuntza-administrazioaren eta UNEDen arteko lankidetzaren esparrua ezartzen du hainbat gaitan, hasi unibertsitate honetako ikasleek Euskadiko gainerako unibertsitateetakoek jaso behar duten tratamendu berdinetik, eta UNEDen jardueren finantzaketari dagokion guztiraino.

Lankidetzaren hitzarmenak UNEDen Ikastetxe Elkartuek hiru lurralde historikoetan egiten duten lan akademiko, kultural eta soziala aitortzen du, eta Eusko Jaurlaritzak ikastetxe horien finantzazioan parte hartuko duela ezartzen du. Vitoria-Gasteizko, Bergarako eta Bizkaiko UNED Ikastetxe Elkartuen finantzaketarako kopurua zehazteko, aurreko ikasturtean matrikulaturiko ikasle kopurua hartuko da aintzat. Kopuru hori, honela banatuko da atxikitako ikastetxeen artean: %70, unibertsitate-titulazioetan matrikulaturiko ikasle kopuruaren arabera; eta gainerako %30, oinarriko finantzaketa gisa, hiru zatitan banatuta.

Finantzaketa hori, honako zereginetarako erabili beharko da: lurraldeko UNED ikastetxe elkartuen jarduerari eusteko, etengabeko eguneraketa teknologikorako eta beharrezkoak diren azpiegituren hobekuntzarako eta mantentze-lanetarako. Bi aldeek artean sinatu beharreko hitzarmen berriak berritasun gisa aurreikusten du, aurreko hitzarmenekiko alderatuta, euskarari eta euskal kulturari lotutako urrutiko prestakuntza-proiektuen finantzaketa handitzeko aukera.

Hezkuntza Sailak eta UNEDek sinatzeko hitzarmenaren arabera, Koordinazio Batzorde bat eratuko da, bi aldeetako kideek osatua. Batzorde hori arduratuko da, besteak beste, finantzaketarako emandako zenbatekoa behar bezala aplikatzen den ebaluatzeaz eta jarraipena egiteaz.

Osasuna

**OSASUN SAILAK 2020KO EITB MARATOIA EKIMEN SOLIDARIOKO
809.026,80 EURO BIDERATUKO DITU COVID-19AREN INGURUKO
IKERKETA-PROIEKTUETARA**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Osasun Sailak proposatuta, BIOEF Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren laguntzen deialdia onartu du, 809.026,80 eurokoa; kopuru hori 2020ko EITB maratoia ekimen solidarioan lortu da, eta COVID-19aren inguruko ikerketa-proiektuetara bideratuko da.

Laguntza-deialdi horren bidez, BIOEFek, EITB maratoiari eta elkarte, erakunde eta instituzioen eta banakoen elkartasunari eta elkarlan aktiboari esker, COVID-19aren ikerketan aurrera egitea du helburu. Gaixotasun hori erronka handia izaten ari da osasun-sistema guztietarako. Jakinkizunik eza eta jakintza gehiagoren beharra presente daude arlo guztietan: epidemiologia; biomarkatzaile potentzialak; kutsatzeko eta babesteko mekanismoak; Big Datan oinarritzen diren ereduak, erabakiak hartzen lagunduko dutenak; gaixotasunaren arrisku-faktoreak; infekzio zelularreko mekanismoak eta immunitatearen sorkuntzakoak; adierazpen klinikoak eta haien tratamendua; zerbitzuak emateko ereduak; prozedura diagnostikoak, eta txertoak. Horrek guztiak agerian uzten du zer garrantzitsua eta premiazkoa den laguntzen deialdi hau Euskadin ikertzaileen ikerketa bultzatzeko.

2020ko EITB maratoian ikerketako arlo tematiko hori sustatzeko eta finkatzeko bildutako zenbatekoa osasun-arloan ikertzeko proiektuak finantzatzera bideratuko da. Laguntza horietara Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratutako eragileek jo ahalko dute, eta ezinbesteko eskakizuna izango da osasun-ikerketako zentro gisa egiaztatutako Sareko eragile batek gutxienez parte hartzea.

Eusko Jaurlaritzarentzat eta Osasun Sailarentzat lehentasunezkoa da ikertzaileen ahaleginari eta talentuari esker hainbeste aurrerakuntza ekartzen ari den ezagutza areagotzera bideratzen den ikerketa biomedikoa sustatzea eta, aldi berean, Euskadin aberastasuna sortzen eta garapen sozioekonomikoa garatzen laguntzea. Eta uste oso hori da Osasun Sailak eta Eusko Jaurlaritza osoak gure osasuneko emaitzak hobetzeko eta Euskadiko garapen ekonomikoa sustatzeko ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten duten apustu estrategikoaren oinarria.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK PRESO PALESTINARREI ASISTENTZIA EMATEN LAGUNTZEN DU; 150.000 EUROKO LAGUNTZA BIDERATZEN DU HORRETARA

Eusko Jaurlaritzak baimena eman du eLankidetzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren dirulaguntza bat *Addameer Prisoner Support and Human Rights Association* elkarteari zuzentzeko; erakunde horrek Israeleko preso politiko palestinarren eta atxilotuen eskubideak defendatzen ditu. Zehazki, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 150.000 euroko laguntza ekonomikoa emango dio erakunde horri.

Dirulaguntza horren helburua da erakundeak lege-asistentzia espezializatua eta doakoa ematea bai herritar palestinar presoek bai haien familiei. Addameer elkarteak kolektibo horren aurka eginiko giza eskubideen urraketen segimendua ere egingo du. Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza Covid-19a jasan duten edo jasaten ari diren presoek iritsiko zaie, bereziki, laguntza moduan.

2015etik, eLankidetzak Addameer babestu du, palestinar atxilotu eta presoek giza eskubideak defendatzen laguntzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK EUSKADIKO DOKUMENTU-KUDEAKETA INTEGRALAREN ETA DOKUMENTU-ONDAREAREN LEGEAREN PROIEKTUA ONARTU DU

- Artxibo publiko zein pribatuen kudeaketa eta trataera arautzen dituen legea da
- Lege berriari esker aurrera egingo da zerbitzu publikoen informazioaren kudeaketaren hobekuntzan, gardentasun-printzipioaren garapenean, dokumentu-ondarearen babesean eta herritarrek informaziora irispidea izateko duten eskubidearen aitortzearen eta erabileran
- Gaur onartutako testua orain Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da bertan eztabaidatu eta onartzeko

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio gaur “*Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta dokumentu-ondarearen legearen proiektuari*” eta aukera eskainiko du aurrera egiteko, zerbitzu publikoen informazioaren kudeaketaren hobekuntzan, gardentasun-printzipioaren garapenean, dokumentu-ondarearen babesean eta herritarrek informaziora irispidea izateko duten eskubidearen aitortzearen eta erabileran.

Gaur onartutako testuak erantzuna ematen dio gizarte digitalaren testuinguruan, dokumentuen kudeaketa integralari ezarri zaizkion erronkei, artxibo-antolaketa egokitu eta koherentea behar baitute. Trantsizio egoera bat bizi dute artxiboek bai arlo publikoan eta baita pribatuan ere, izan ere, nabarmen eta etengabe hazi da informazio elektronikoa. Sistema eta formatu desberdinetan sortzen eta biltegitratzen dira gaur egun dokumentuak eta nolabaiteko bizikidetzak dago paperezko dokumentazioaren, sistema mistoen eta erabat elektronikoen artean. Behin Gobernu Kontseiluak “*Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta dokumentu-ondarearen legearen aurreproiektua*” onartuta, testua, Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

Arau berri honek sei titulu, bi xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu. Honako hauek arautuko ditu legeak:

- Titulartasun publikoko dokumentuen kudeaketa integrala, tratamendua eta artxiboen bidezko antolaketa.
- Euskadiko Dokumentu Ondarearen konfigurazioa, babesa eta zaintza.
- Euskadiko Artxiboen Sistemaren egitura, antolaketa eta kudeaketa.
- Euskadiko Dokumentu Ondarea osatzen duten artxibo pribatuen titularren eskubideak eta betebeharrak.

- Euskadiko Artxiboen Sistema eta Euskadiko Dokumentu Ondarea osatzen duten artxibo-sistemetan zaindutako titulartasun publikoko dokumentuetara irispidea izateko eskubidea.
- Zehapen-araubidea.

“*Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta dokumentu-ondarearen legeak*”, behin Eusko Legebiltzarrak onartu eta indarrean sartzen denean, honako hauei aplikatuko zaiei: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa; Lurralde historikoetako sektore publikoa; Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak eta tokiko sektore publiko instituzionala; Eusko Legebiltzarra; Arartekoa; Herri Kontuen Euskal Epaitegia; Lurralde historikoetako Batzar Nagusiak; Euskal Herriko Unibertsitatea; Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio-ahalak egikaritzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko pribatuak; Euskadiko dokumentu-ondarea zaintzen duten artxibo pribatuen titular diren pertsona fisikoak eta juridikoak.

Titulartasun publiko dokumentuak

“*Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta dokumentu-ondarearen legearen proiektuak*” zehazten duenez, honako erakunde publiko eta pertsona fisiko edo juridikoen dokumentuak dira publikoak:

- Eusko Legebiltzarrarenak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak eta Arartekoarenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluarenak eta Administrazio Orokorrarenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sektore publiko instituzionalarenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioenak, esleituta dituzten funtzio publikoei dagokienez.
- Lurralde historikoetako Batzar Nagusienak eta Lurralde Historikoetako sektore publikoarenak, zeina Administrazio Orokorra eta sektore publiko instituzionalak osatzen baitute.
- Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateenak eta tokiko sektore publiko instituzionalarenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitate publikoenak, eta haien mendeko zentro eta egiturenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Estatuaren Administrazio Orokorrenak eta haren sektore publiko instituzionalarenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Justizia Administrazio organoenak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten notariotzenak eta erregistro publikoenak.
- Europar Batasuneko erakundeen mendeko organismoenak eta nazioarteko beste edozein organismo publikorenak, batzuek zein besteek Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza badute.
- Nortasun juridiko propioa duten entitateenak, baldin eta artikulua honetan aipatutako entitateek eta pertsona juridikoek sortuak badira, nagusiki haien partaidetza badute edo benetan haien kontrolpean badaude,

administrazio-ahalak baliatuz edo funtzio publikoak egikaritzuz sortutako dokumentuei dagokienez.

- Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten pertsona pribatu fisiko zein juridikoenak, zerbitzuak ematean sortutako dokumentuei dagokienez.
- Organismo publikoen mendeko entitateenak eta aurreko kasuetan jasota ez dagoen beste edozein entitate publikorenak, administrazio-ahalak baliatuz edo funtzio publikoak egikaritzuz sortutako dokumentuei dagokienez.

Aipatutako erakunde bakoitzak aurrerantzean bere artxibo-sistema propioa izan beharko du eta denek osatuko dute Euskadiko Artxibo Sistema. Helburua lankidetzarako, koordinaziorako eta aholkularitzarako espazioa sortzea izango da. Horretarako kide eta disziplina anitzeko bi organo sortzen dira: batetik Euskadiko Artxiboen eta dokumentu Ondarearen Kontseilua eta bestetik Euskadiko Dokumentuak Balioesteko, Aukeratzeko eta Irispidean jartzeko batzordea. Lehenengo batzordearen zeregina aholkularitzakoa izango da. Bigarrenarena Euskadiko Artxiboen sistemari atxikitako entitateek sortutako dokumentu-tipologia eta serie guztiak balioestea.

Euskadiko Dokumentu Ondarea

Gaur onartutako legearen aurreproiektuak Euskadiko Dokumentu Ondarea ere arautzen du. Bere barnean daude sortu zirenetik 50 urte baino gehiagoko antzintasuna duten titulartasun publiko eta pribatuko dokumentu guztiak baita, Euskal Kultura Ondarearen EAEko erregistroan inskribatuta dauden dokumentu guztiak ere. Euskadiko Dokumentu Ondareak inbentario bat izango du ondarea bera osatzen duten dokumentuak eta dokumentu horiek gordetzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko artxiboak identifikatzen laguntzeko helburua izango du.

Lege honek Euskadiko Artxibo Historikoaren izaera juridikoa indartu eta eguneratu ere egiten du eta berea izango da *“Euskadiko Dokumentu Ondarea osatzen duten, edo osa dezaketen, eta bere zaintzapean dauden dokumentuak kudeatzea, kontserbatzea eta zabaltzea”*.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko artxibo sistema

Eusko Jaurlaritzan administrazio publikoaren eskumena duen sailaren mende egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko artxibo sistema, Euskadiko Artxibo Historikoa izan ezik. Azken hau, Jaurlaritzan artxiboen eta dokumentu ondarearen eskumena duen sailari atxikita egongo da. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko administrazio unitate edo bulego bakoitzean kudeaketa artxibo bat egongo da. Horrez gain Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Artxibo Nagusia ere arautuko du lege berriak, EAEko sektore publikoak sortutako dokumentuen kudeaketa politikak eta zaintza gauzatuko dituena.

Toki-erakundearen artxibo-sistemak

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen *“Euskadiko Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta dokumentu-ondarearen legearen proiektuak”* toki-entitateen

artxibo-sistemak ere arautzen ditu. Etorkizuneko legearen arabera, udalak eta gaineratiko toki erakundeak behartuta dauden beren artxibo-sistema propioa edukitzera era sistema horrek gaitasun nahikoa izan behar du lege honetan ezarritako funtzioak eta eginbeharrak betetzeko. Hala ere, udalek eta gainerako toki-erakundeek mankomunitateak osatu ahal izango dituzte beste udal erakunde batzuekin edo udalerrria baino lurralde-eremu handiagoko entitate batzuekin legeak zehazten dituen baliabideak izateko.

Artxibo pribatuak

Artxibo pribatuak ere arautzen eta definitzen ditu gaur onartutako lege proiektuak. Artxibo pribatuzat joko dira “beren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten edo kokatuta dauden pertsona fisiko edo juridiko pribatuek beren eginkizun eta jardueretan sortutako dokumentuak eta dokumentu funtsak zaintzen dituztenak” eta beraz, honako dokumentu hauek biltzen dituztenak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko kultura- eta hezkuntza-fundazio eta -elkarteak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea duten antolakunde politiko, sindikal eta enpresarialak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eliza-entitateak eta erlijio desberdinetako elkarte eta organoak.
- Historian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoan eragina izan duten familiak eta pertsonak.

Herritarren eskubideak eta betebeharrak

Lege berriak, indarrean sartzen denean, pertsona guztiei aitortuko die Euskadiko Artxiboen Sistema osotzen duten dokumentuetara zein Euskadiko Dokumentu Ondarea osatzen dutenetara irispidea, beti ere, indarrean dauden arauak errespetatuz eta dokumentuak kaltetu gabe. Arau-haustek ematen diranean 50.000 eta 300.000 euro arteko isunak aurreikusten ditu legeak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 510.000 EURO BIDERATUKO DITU ARTE ESZENIKOAK, MUSIKA ETA LITERATURA SUSTATZEKO, MERKATURATZEKO, NAZIOARTEKOTZEKO ETA BANATZEKO

- **Laguntza hauek pandemiaren ondorioei erantzuten eta merkatu berriak irekitzen lagunduko dute**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra arte eszenikoak, musika eta literatura profesionala sustatzeko, merkaturatzeko, nazioartekotzeko eta banatzeko dirulaguntzak emateko agindua.

Diru partida honekin kulturaren arloko profesionalei, euskal sortzaile, ekoizle eta komertzialei, laguntza eta babes ematen zaie, modu erabakigarrian, merkatu berriak irekitzeko eta horretarako behar diren sustapen-tresnak birdimentsionatzeko, arte eszenikoak, literatura edo musika sustatzeko eta merkaturatzeko prozesuak diruz lagunduz.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza hau berria da. Batetik orain arte Etxepare Euskal Institutuak arte eszeniko, musika eta literatura azoka eta merkatuetara joateko kudeatzen zituen laguntzen deialdia eta bestetik arte eszenikoen ekoizpenen banaketarako laguntza deialdi bakarrean biltzen dituen agindua da gaur onartutakoa. Deialdia hauek bateratzeak pandemiaren ondorioei erantzuten eta kultura-sektoreen iraunkortasuna modu egituratuan bultzatzen lagunduko du.

Gaur onartutako dirulaguntza hauek 510.000 euroko aurrekontua dute honela banatuta:

- **Arte eszenikoetarako laguntzak: 330.000 euro** arte eszenikoetako konpainia profesionalak (antzerkia, dantza, zirkua) 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitartean egiten dituzten ikuskizunak sustatzeko, merkaturatzeko, nazioartekotzeko eta banatzeko gastuak finantzatzeko. Hautatutako proiektuak gehienez 15.000 euroko dirulaguntza jasoko dute beti ere, aurrekontuaren %75a gainditzen ez badu.
- **Musikarako laguntzak: 150.000 euro** Euskal Herriko musika-taldeak eta gehien bat euskaraz errepertorioa dutenen zuzeneko zirkuiturako sustapen, merkaturatze, nazioarteko eta banaketa proiektuak finantzatzeko. Proiektu unitarioek gehienez 5.000 euro jasoko dute eta enpresa-proiektuek 15.000 euro. Kasu bietan ezin izango da gainditu proiektuaren aurrekontuaren %75a.
- **Literaturarako laguntzak: 30.000 euro** literaturaren sektoreko sortzaileak (idazketa, ilustrazioa, itzulpena) eta argitaletxeak diren pertsonak eta entitateak 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra bitartean liburu eta literaturaren arloko azoka eta ekitaldi profesionaletan

parte hartzeko egiten dituzten gastuak finantzatzeko. Argialetxeen kasuan dirulaguntzen gehiengo kopurua 5.000 eurokoa izango da eta sortzaileen kasuan 3.000 eurokoa, beti ere, aurrekontuaren % 75a gainditzen ez badu. Dirulaguntza eskatzeko sortzaileek azken hamar urteetan gutxienez bi liburu argitaratuta izan behar dituzte eta argialetxeen kasuan azken bi urteetan gutxienez bost.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da maiatzaren 5ean hasita.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK FILM LUZEEN, SERIEEN EDO MINISERIEEN GARAPENA 400.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU

- **Fikziozko, animaziozko eta dokumental erako proiektuak dira diruz lagunduko direnak**

Gobernu Kontseiluak gaur 2021eko ekitaldian zehar edozein hedabidetarako eta edozein euskarritarako film luze, serie edo miniserie proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartu du. Guztira 400.000 euro izango dira: 250.000 euro film luzeak garatzeko eta 150.000 euro serieak eta miniserieak garatzeko.

Diruz lagunduko diren gastuak honakoak izango dira:

- Obraren egilearen eskubideak eskuratzea.
- Gidoiaren garapena. Berridazketa edo egokitzapena, elkarrizketak, kanpoko aholkularitza, itzulpena.
- Promozio-materiala diseinatzea eta lantzea: Material inprimatua, teaser-a, trailerra, programa pilotua, story board-a, web orria.
- Marketing- eta banaketa-plana garatzea.
- Merkatu eta koprodukzio foroetara joatea. Bidai gastuak, alojamendua eta akreditazioak.
- Casting-a egitea eta kokapenak bilatzea.
- Ikerketa dokumentala, grafikoa (animaziozko proiektuetan) eta artxiboak bilatzea.
- Langile-gastuak.
- Aholkularitza juridikoa eta fiskala aurkeztutako proiektuarentzat.
- Gastu orokorrak.

Film-luzeen garapena

Dirulaguntzetara aurkezteko film luzetzat hartuko da *“ikus-entzunezko lan bat, fikziozkoa, animaziozkoa edo dokumentala izan eta 60 minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan, plataformetan edo telebistetan komertzialki ustiatzeko erabiltzen dena”*. Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez, 25.000 eurokoa izango da fikzioaren eta dokumentalaren kasuan eta gehienez 40.000 eurokoa animazioa denean.

Serieen garapena

Gaur onartutako dirulaguntzekin fikziozko, animaziozko eta dokumental serieak eta miniserieak garatzen lagunduko da. Horretarako serietzat hartuko dira *“ikus-entzunezko proiektuak, fikziozkoak, animaziozkoak edo dokumentalak izan, guztira, gutxienez, 135 minutuko iraupena dutenak, lehen denboraldiari dagozkion hiru kapitulurekin gutxienez, eta zine aretoetan, telebistetan edo bestelako hedapen-moduetan ustiatzen direnak”*.

Bestalde, miniserietzat hartuko dira “ikus-entzunezko proiektuak, fikziozkoak, animaziozkoak edo dokumentalak izanik, gutxienez bi kapitulu eta guztira 90 minutuko iraupena dutenak. Proiektu horiek zine-aretoetan, telebistetan edo plataformetan merkaturatzeko ustiatu beharko dira”.

Aurkezten diran fikziozko edo dokumentalezko serie edo miniserien kasuan gehienez 35.000 euroko laguntza jasoko dute. Animaziozko serieen eta miniserieen kasuan berriz, laguntza, gehienez, 45.000 eurokoa izango da.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da maiatzaren 1etik hasita.

Trabajo y Empleo

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO ENTRE LANBIDE Y LA TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN

- **Permitirá luchar contra el fraude y mejorar y agilizar la gestión de las ayudas, subvenciones y prestaciones**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la suscripción de un convenio de colaboración entre la Tesorería General de la Seguridad Social y Lanbide para el intercambio recíproco de información que permitirá luchar contra el fraude y mejorar y agilizar la gestión de las ayudas, subvenciones y prestaciones que se conceden a cargo de fondos públicos.

En el marco de la colaboración mutua existente, ambas partes consideran fundamental para el cumplimiento de sus fines establecer un sistema estable de intercambio de información y de colaboración que, en su caso, incluso permitirá el acceso directo a sus respectivas bases de datos informáticas

Este convenio pretende continuar con la relación iniciada entre la TGSS y el entonces Departamento de Empleo y Asuntos Sociales con el convenio suscrito el 11 de mayo de 2010 de cesión de datos, como instrumento de apoyo para el correcto ejercicio de las competencias que iban a ser transferidas a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de políticas activas de empleo, a fin de garantizar la continuidad en la gestión de los programas asumidos, que hasta entonces realizaba el Servicio Público de Empleo Estatal.

En consecuencia, el presente Convenio sustituirá al anterior pero con un alcance mucho más amplio en cuanto que permitirá acceder a mayor información (como por ejemplo, a bases de cotización de los trabajadores e informes de plantilla media de las empresas), lo que facilitará el correcto ejercicio de las competencias atribuidas a Lanbide.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO MANIFIESTA SU CRITERIO DESFAVORABLE A LA PROPOSICIÓN DE LEY SOBRE UN IMPUESTO MEDIOAMBIENTAL DE GRANDES SUPERFICIES COMERCIALES

El Gobierno Vasco ha manifestado su criterio desfavorable a la toma en consideración de la proposición de ley relativa al impuesto medioambiental de grandes establecimientos comerciales porque sería contradictorio con un modelo tributario vasco basado en el acuerdo y la colaboración interinstitucional y, además, generaría disfunciones en la política de protección al comercio, sector ahora mismo muy afectado por la pandemia.

En su reunión semanal, el Consejo de Gobierno ha analizado hoy en Vitoria-Gasteiz la proposición de ley presentada por el grupo parlamentario EH Bildu y considera desaconsejable la implantación de un impuesto medioambiental que grave la capacidad económica de las grandes superficies y centros comerciales, ya que perjudicaría la recuperación del sector.

